

## ELEIZA, KRISTOREN GORPUTZA

1

Sinisten dogu Eleiza dala  
Jesukristoren Gorputza,  
haundiagorik ezin da esan,  
sarri ez balitz hitz hutsa!  
Legeak ta ohitura  
azalezko itxura,  
alperrik da harroputza!  
Behar leukena ezin izana...  
da Elizaren gurutza.

2

Eleiz gorputzak izan behar  
dau  
graziaren ezaugarri,  
bere egitez eta dotrinaz  
emonaz Jesusen barri.  
Irakatsiz argia,  
erakutsiz garbia,  
Jaunaren Hitza oinari.  
Gorputz horretan Jesus dagola  
munduak daian igarri.

3

Eleizama da JesusenGorputz  
luze, mardul ta zabala,  
eta Jesusen Espiritua  
arima espirituala.  
Espiritua fina  
etenbako ekina;  
baina gorputza makala...  
Gorputzagaitik zenbat galtzen dan  
eta hauxe da tamala!

4

Gorputz honexen atalak gara  
hau da erantzunkizuna!  
Atal iharrak galdu ohi dabe  
gorputzaren osasuna.  
Espiritua zatoz,  
zure preminan gagoz,  
sutu gure maitasuna,  
bizibarrituz Eleizamaren  
grazizko amatasuna.

A. Matzel